

**Bartzelonako Euskal Etxeak**

**antolaturiko**

# I. EHSona lehiaketa

OINARRIAK

1) Euskaraz abestu eta EH Sona jaialdian inoiz parte hartu ez duten talde eta bakarlari orok parte har dezake lehiaketan. Ez da inolako mugarik jarriko musika estiloari dagokionez.

2) Saria Bartzelonako Euskal Etxeak antolatzen duen EHSona'10 jaialdiaren barnean kontzertu bat eskaintzea Bartzelonan, Espai Jove La Fontana aretoan. Euskal Etxeak bere gain hartuko ditu taldearen bidaia, loa eta afaria (traiektoko 100€, gehienez ere bi auto, beharrezkoak izanez gero), kontzertuaz gain.

3) Lehiaketan parte hartzeko gutxienez lau abesti bidali beharko dira.

4) Lehiaketaren egutegia hau izango da:

-Irailak 20tik Urriak 20ra:lehiaketara aurkezteko epea

-Azaroak 2: irabazlea jakinaraziko da.

-Azaroak 20an: kontzertua.

5) Kontzertua gutxienez 30 eta gehienez 50 minutukoa izan beharko da.

6) Abestiak formatu digitalean bidali behar dira eta Bartzelonako Euskal Etxeak bere webgune eta blogean erabiliko ditu lehiaketa eta kontzertuaren berri emateko asmoz.

7) Epaimahaia Euskal Herrian eta Bartzelonan musika munduan lan egiten duten hainbat partaidek osatuko dute.

8) Parte hartzaileek jabetasun intelektualari buruzko indarrean dagoen legediarekiko edozein lege-hauste ez dela antolatzaileen ardura baieztatzen dute.

9) Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek onartzea dakar.

10) Antolakuntzak, ezinbesteko baderitzo, oinarri hauetan aldaketak egin  ahalko ditu eta behar bezala jakinaraziko ditu.

11) Informazio gehiago eta lanak bidaltzeko:


Bartzelonako Euskal Etxea

Placeta Montcada 1-3 08003

Bartzelona

http://www.euskaletxea.cat/

http://blog.euskaletxea.cat/

http://www.ehsona.com/

barcelona@euskaletxeak.org edo kulturabcn@euskaletxeak.org


